Literatura →

Festa tartarekin, baina zu gabe

Alex Gurrutxaga

Castillo Suarezen azken poema liburuaren irakurketa, ezer baino lehen, sorpresa ona izan da. Sorpresa, barruan ez dudalako aurkitu liburuaren itxura ikusita espero nuena. Azalean ezpainetako barra gorria dator; kontrazaleko poeman (*Ez naiz inoren ama*) gizartearekiko leku-hartze bat da klabea, agerian uzten duena emakumeari egotzi izan zaion ama rola deseraikitzeko nahia. Poema fina izan arren, feminismoak 70etatik egin duen aldarria da poetak bere egiten duena («Inori ez entzuteko umeak ekartzeko etorri naizela») eta, kontrazalerako interesgarria izan daitekeen arren, ez da poema horren tonua liburuan nagusitzen dena; berak esana da: «Nik ez dut emakumezkoen literaturari buruzko gogoetarik egiten, eta ez dut egin nahi». Eta garrantzitsuena, esango nuke poema klase horrek ez duela agertzen irakurleak liburuaren barruan aurkituko duen ahots poetikoaren izaera.

Lau atal ditu liburuak, aipu banarekin hasieran, eta bi gai nagusi: bakardadea eta desamodioa. Horrez gain, gaiak bustitzen dituzten bi baldintza daude: feminitatea eta idazletza.

Begirada poetiko indartsua du poetak: ironikoa da, garratza, eta mingarria ere bai maiz. Hain zuzen, lehen ataletik bertatik suntsitzen du urtebetetze festaren irudi liluragarria; festaren aurrean bakarrik dagoen pertsona jartzen digu, festara gonbidatu ez dutena. Modu efektiboan adierazi daude munduan bere tokia aurkitzen ez duenaren abandonua eta desolazioa. Halaxe ageri da poeta, aparte eta tokia aurkitu ezinik («Gure askatasun eremua erraietara murrizten da», 22); ulergaitz eta bakarrik («Guk, bitartean, giltzak nahita galtzen ditugu, zure etxean har gaitzazun iluntzean», 52); eta ihesa (idazkuntza) mingarri zaio («Nire samintasunak enbarazu egiten du. Batzuetan, baina, konbentzitu egiten dut eta poema bilakatzen da», 51).

Bakardadeari lotuta maitasuna ageri da, edo zehatzago, desamodioa eta maitasunerako ezina. Esanguratsua da Iñigo Aranbarriren aipua: «Maitasunari buelta emanda ez da gorrotoa agertuko, banatzea baizik. Bereiztea, ez herra». Maitasunaren ifrentzua ere bada, beraz, bakardadea. Aipatzekoa da maitasunaz ari denean «zu» bati mintzo zaiola ni poetikoa (poetak lehenago ere egin izan duen bezala): «Zu maitatzeko giroa dago, baina nahiago dut beste baten tokian egon» (29).

Formalki, Castillo Suarezen poesia narratiboa da, mezua ematen zuzena, ornamentazio gutxikoa eta hizkera arruntean hondua. Nabaria da, halaber, poemak ixteko era, aforismo itxurako esaldi borobiltzaileekin («Leku gehiegi daukat/ eta sobera gauza botatzeko», 59). Bere-bereak dituen ezaugarriokin batera, *Urtebetetze festa*-n formari buruzko gogoeta agerikoa da; izan ere, poema gehienak narrazioak bezala justifikatuta daude. Egia da Castillo Suarezen poesiak ez duela hainbeste jarraitzen lerroen errimoa, baizik eta esaldiarena, eta horregatik, poemen errimoaz jabetzeko, ez dagoela aparteko alderik. Hori bai, badago pentsaketa bat poesia narratiboaren eta prosa poetikoaren mugaz.

Kontrazala irakurrita, sorpresa positiboa izan da, bai, *Urtebetetze festa*-ren irakurketa. Izan ere, iruditzen zait Castillo Suarezen poemen puntu indartsua autoironian dagoela (nahiz berak esan ez duela nitasunetik idazten), distiratsuena dela ironia garratza ni poetikoari berari zuzentzen zaionean. Intentsitate handiko poesia egiten du orduan eta irakurlearengan sentipen latzak sortzeko gai da: «Zain nauzu urtebetetze tartari begira./ Aulki hutsak daude inguruan» (71).

'URTEBETETZE FESTA'
- **Egilea:** Castillo Suarez.
- **Argitaletxea:** Elkar.



'HAMAIKA BIRJINA (OREN LIBURUA)'
- **Egilea:** Frai Joxe.
- **Argitaratzailea.** Frai Joxe (egile editore).

Ezizenez sinatutako eta egile ezagunik gabeko poema liburu autoeditatua da *Hamaika birjina*, erreferentzia erlijioso ugariz hornitua, liburuaren atalen izenburuetan ere igartzen denez: *Matutinak, Prima, Tertzia, Sexta, Nona, Bezperak, Konpletak* eta *Egunaren amaierakoak.*

'HAUSNART' ALDIZKARIA, 2. ZENBAKIA
- **Argitaratzailea:** Lapiko Kritikoa.

Honako hau da *hAUSnART* aldizkariaren egileek 2. zenbakirako prestatu duen eskaintza: Mario Zubiaga, Jakue Pascual, Zaloa Basabe, Imanol Galfarsoro eta Laura Mintegiri egindako elkarrizketak; eta Unai Apaolaza, Michael J. Kelly eta Imanol Galfarsorok idatzitako artikuluak.

↓ Haur eta gazte literatura

Fabula 2.0

Imanol Mercero

Tapa gogorreko edizio koloredun txukunean argitaratua, txitxarraren eta inurriaren fabula ezagunaren bertsio modernoa dugu hau, fabuletan agertzen zaizkigun estereotipoak gainditu eta istorio sakonago eta luzeago bat eskaintzen duena.

Kontaketak 32 orrialde hartzen ditu, horietatik erdiak testuari eskainiak eta beste erdiak irudiei. Narrazio irudidunetan ohikoa den eran, irudiak testuaren morrontzan daude, eta kontaketaren hariari testuingurua ematen diote, fokua ezartzen laguntzeaz gain.

Irakurketa arineko testua da, elkarrizketa eta esaldi laburrekin josia, menpeko esaldirik apenas duena eta puntuazioa artezki darabilena, jariotasunari bidea ziurtatzen-edo.

Umore dosi handitan kontatzen zaigu nola Marikanta deritzon txitxarrak amarru bat asmatzen duen inurriak engainatu eta negua eurekin igarotzen utz diezaioten. Inurrien Abesbatzen Lehiaketa bat izango dela kontatzen die eta, intsektu langileen harriduraz baliaturik, bere burua laguntzeko eskaintzen die, inurriak kantuan abilak izan, batere abilak ez direlako. Baietz esaten diote —ulertzekoak diren zalantzak alde batera uztea lortzen dutenean— eta negua entseguetan pasatuko dute, gogor saiatuz, baina ez oso emaitza onarekin.

Marrazkiak umore tonu berean eraikitako plano pikatu orokorrak dira. Inurriak obretako beharginen kaskoarekin agertzen dira eta Marikanta, nola ez, «ederra» dago. Kolore grisaren gainean erantsitako horia nabarmentzen da intsektuetan, eta grisaren gainean ezarritako berdea eta urdina begetaletan. Oso une jakinetan gorria erabiltzen da begetalak (orbela, udaberriko lilia) edota intsektuak (zizareak) adierazteko. Protagonista soineko eta pamela hori-gorri karratuдun karrankariarekin agertzen zaigu, soilik diva bati zilegi zaion gisan.

Testuan zehar pertsonaien izaeraren berri ematen zaigu eta izaera horren gainean narratzaileak zeharka balorazioa egiten du. Esaterako hauxe esaten da txitxarraz: «Marikanta txitxarrak ez zuen ia ezertan pentsatzen: beharbada horregatik abesten zuen hain ongi» eta hau ere bai: «Eta gogoa, txitxarren kasuan, legea izan ohi da». Eta hau, ironia gainezka dariola, inurriez: «Egia esanda, oso gutxitan izaten zuten aukera beren balioa azaltzeko, zein interesgarriak izatera hel zitezkeen azaltzeko, beren dohainak eta bertute ezkutuak argitara ekartzeko...». Eta beste hau amaiera aldera: «Gainera, artez bete zuela inurri triste eta aspergarri batzuen bizitza pentsatzen zuen [Marikantak]».

'MARIKANTA ETA INURRIAK'
- **Idazlea:** Mariasun Landa.
- **Ilustrazioak:** Jokin Mitxelena.
- **Argitaletxea:** Erein.

Liburuaren amaieran gaudela, Leonor sorgin-orratzak hitza hartzen du, kontzientziaren ahotsa bailitzan: «Ez al dizu lotsarik ematen langile gaixo horiek engainatu izanak?» Eta hala eginik txitxarrari eta narratzaileari euren burua zuritzeko aukera ematen die: «Harrezkero, zizareek diote inurritegi hartako inurriek lehenago adina lan egiten dutela, baina poz handiagoz (...). Eta bada ordutik txitxarrak gozoago hartzen dituztela esaten duenik ere».

Inondik ere, fabula Samaniegotarra gainditzen duen obra da hau, irakurleak, duda gutxi, atseginago hartuko duen *fabula 2.0* joeraren emaitza gogoangarri bat.

'HIRU ILARGI LAURDEN'
- **Egilea:** Ernesto Prat Urzainki, *Little*.
- **Argitaratzailea:** Metaziri.

«Eleberri hau estatuaren jazarpenari ebatsitako minutu bakoitzarekin egin da, sasiko egun unagarrietan, prerriaz, ihesaldi itoan ilargiari begira», dio liburuaren kontrazalak. Elizondoko gaztetxean aurkeztu zen, urtarrilaren 11n. Baztango hiru herritan dago salgai: Erratzun, Arizkunen eta Elizondon.